



Festetan, handira!

Etxarren, Bakaiku eta Olatzagutian ospakizun betean daude / 14-15

**Merkataritzari
ibarrean bulkada
emateko dozena bat
jarduerako plana
egin da** / 5

**Estalpea jartzeko
egitasmoak
Arruazuko Udalar
nahiko lan sortzen
ari zaio** / 7

**Sakanako Haurren
Triatloian Erik Chaves
eta Aitzol Zelaia izan
ziren Sakana Triatloi
Taldeko finenak** / 8-9

**Ane Martija abeslari
etxeberriarrak
'Bidean aurrera'
lehenengo diskoa
kaleratu du** / 10

SINADURAK



ANDREA
CARRILLO
JUANBELTZ / 4



SAKANAKO
SARE
ETA ETXERAT / 4



ZIORDIKO
LIBURUTEGIA / 4

Kaleko katuen bizitza hobetuz

Altsasuko Udalak katu koloniak sortzeko eta kaleko katuen babeserako eta kontrolerako aurrekontua onartu du. Herrian badira hainbat boluntario katuen ongizateaz arduratzen direnak

Erkuden Ruiz Barroso ALTSASU

Antzinako Egipton katuek jainkotar izaera zuten eta babesaren sinboloa ziren. Izan ere, felidoen familiakoak dira, lehoiak bezalaxe, eta haien parean jartzen zituzten; Ra egiptoarren jainko goren lehoiaren irudiarekin irudikatzen zuten, beraz, katua jainkoaren parean jartzen zuten ere. Erdi Aroko Venecian jainkoaren parean ez, baina aristokraziako kide bezala jarri zuten katua: hiriaren salbatzaileak izan ziren, XIV. Mendean mendebaldetik iristen ziren itsasontziak merkataritzarako produktua eramateaz gain, arratoiak ere eraman zituzten eta arratoiak peste izurritea eragin zuten. Euskal Herrian ere baserri gehienetan, guztietan ez esateagatik, gutxienez katu bat zegoen. Katuak ehiztariak dira, eta horregatik hainbat zibilizazio eta gizarteetan ezinbestekoak izan dira herri, hiri eta etxeetan sagu, arratoi eta bestelako animaliez babestuta egoteko. Are gehiago, goserik ez badute ere ehiza egiten omen dute katuek; nahiz eta jokabide oso arraroa izan animalia munduan.

Gaur egun, aldiz, katuek beste irudi bat dute eta herrietako kaleetan zaindu gabeko hainbat katu aurki daitezke. Altsasun badira hainbat boluntario katuen ongizateaz arduratzen direnak, eta Nafarroako Gobernuak ere 2019. urtean Animalien Babeserako Foru Legea 19/2019 onartu zuen. Hala ere, udalek ez dutela

betetzen salatu dute Altsasuko boluntarioek eta Nueve vidas Beriain elkarteak. Legearen arabera udalen edo eskualdeen egin beharra da askatasunean bizi diren katuen kontrola eta babesa, katu kolonien bidez. Horretarako, katuak hartu, esterilizatu, identifikatu eta askatu behar dituzte, eta identifikazioa udalaren izenean egingen da. Bestetik, koloniak sortzeko tokiak zehaztuko ditu udalak eta partikularren edo erakundeen laguntzarekin animalien zaintza egingen dute.

Ekainaren 26ko udal batzordean Altsasuko Udalak katuak hartzeko, esterilizatzeko eta katuen populazioaren kontrolerako bost kolonia sortzeko 17.025 euroko partida onartu zuen. Kaleko katuak zaintzeaz arduratzen diren boluntarioek eta Nueve vidas Beriain elkarteak haiekin harremanetan jarri ez izana salatu dute, eta udalarekin "bilera bat" eskatzen dute, "behintzat urratsak edo pautak zeintzuk izanen diren ezagutzeko".

Boluntarioak

"Egun batean txakurrarekin paseo bat ematen ari nintzen panifikadoraren zonalde horretan eta

ANIMALIEN BABESERAKO 19/2019 FORU LEGEA ONARTU ZUEN NAFARROAKO GOBERNUAK

normalean txakur pentsua eramaten nuen momenturen batean behar banuen txakurrari emateko; halako batean katu bat ateratzen zaidan eta miauka hasi zen. Neraman pentsua eman nion eta jan zuen. Aurrera jarraitu nuen eta beste katu bat ateratu zen, eta beste bat...". Katuak zaintzen dituen boluntario baten lekukotza da. "Etxera joan nintzen pentsu gehiago hartzera eta ordutik hasi nintzen katu pentsua erosten eta bide horretatik botatzen. Egon zen jendea denetarik esan zidana, iraintzen ninduten, ez zidaten janaria botatzen uzten; nik haiekin eztabaidatzen nuen, ez naizelako isiltzen". Legea onartu aurretik hasi zen boluntario hau katu jarria ematen, "nik esaten nien udaletxera joateko eta kexatzeko". "Mundu horretan" hastean gauza oso latzak ikusi dituztela aipatu du: "pozoitutako katuak, katuak hezurretan... Oso gauza txarrak ikusi ditut".

Beste boluntario bat antzeko moduan hasi zen ere katuak zaintzen: "Etxera katu bat eraman genuen eta katuei eta animaliei kariñoa hartzen hasi ginen. Orduan, inguruan dauden katuak ikusten hasten zara eta zein egoeratan dauden ikusten duzu. Altsasun oso gaizki daude, oso egoera txarrean daude". Jana ematen hasi ziren. "Bi zonaldeetan ematen dugu; bat oso ongi prestatu dugu guk egin dugulako, baina beste batean kontenedoreen azpian eman behar diegu janaria".



Adopzioan dauden katuak. UTZITAKOAK

"Penagarria" iruditzen zaie horrela ibili behar izatea. Haiek ere auzolagunekin arazoak izan dituzte: "Boluntarioak txandakatzen joaten gara, eta batzuk utzi dute ez dutelako auzolagunekin arazorik nahi".

Batzuk herriaren zonalde batekin beste batzuk beste alde batetik, kasu baten ondorioz elkartzen hasi ziren. Vicky Montesinos Nueve vidas Beriain elkarteak idazkariak azaldu du: "Altsasuko Udala, kasu honetan udaltzainak, hainbat elkarterekin harremanetan jarri ziren katu eme bat udaletxean zutelako eta bertan erditu zuen. Udaletxetik Nueve vidas Beriainekin harremanetan jarri ziren ni idazkaria naizelako eta Altsasun bizi izan naizelako. Ni boluntario batekin harremanetan jarri nintzen banekielako katuekin zebilela". Horrela hasi ziren pixkanaka elkartzen. "Udalarekin bildu genien eta egoera zein zen erakutsi ginen". Katuak "larrialdi" egoeran daudela azaldu zuten

egoera horretan: "Ez bakarrik katu asko daudelako, baizik eta haien egoera osasungaitza delako. Esaten digute janaria ez emateko, baina ez badiugu janaria ematen kontainerretatik jaten dute eta janari hori usteltze egoeran egoten da eta ondorioz gaixotasunak hartzen dituzte, pertsonei pasa ditzaketanak".

Legea

Udalarekin izan zituzten lehenengo bilerak 2021. urtean izan ziren. Garai horretan 2019ko Animalien Babeserako Foru Legea onartu zela denbora gutxi pasa zen, bi urte, eta Montesinosi ulergarria egiten zaio haren inguruan ezer gutxi jakitea. "Baina dagoeneko bost urte pasa dira eta oraindik ez dago martxan. Udalek ezjakintasuna aipatzen dute; esaten dute ez dakitela lege hori existitzen denik. Nik instantzia pila bat bota ditut, albatariarekin bilerak izan ditugu eta orain badirudi udalak aurrekontua onartu duela. Ea noiz



EGOKI
Ventanas PVC Leihok

www.ventanasegoki.com

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea • Olazti

EROSOTASUNERAKO PENTSATUAK

Diseinu soileko lehiu berriak

Erakusketa: Olite kalea 16 • Iruñea





jartzten den martxan". Urratsak eman arte katuen ongizaterako dirua boluntarioen poltsikotik ateratzen dela azaldu du Nueve vidas Beriain elkarteko kideak. "Udalak esaten du honetarako eta honetarako dirua dago, boluntarioek haien dirua eta denbora ematen jarraitzen dute". Momentu honetan legeak laguntzen dien norbait errieta botatzera joaten bada, "esan diezaiok hori egiteko udalaren baimena dutela".

Udalaren eginbeharra ere bada albaitariaren gastuak estaltzea. "Katu bat oso egoera txarren ikusten badute, albaitariarengana eraman dezakete eta zaintza batzuk izan ditzake. Betiere udalak albaitariaren aurrekontuak onartzen baditu, baina, noski, katuak agian ezin du itxoin". Kasu horretan, boluntarioen esanetan, "gerora ordaintzen badute ongi". Zenbait kasutan, gainera, ez dakite katuak aurrera egingo duten ere, "ahal dutena egiten dugu".

Altsasuko Udalak batzordean onartutako 17.025 euroko aurrekontuan 12.000 euro albaitariaren zerbitzuak ordaintzeko izanen ziren, 1.000 euro inguru boluntarioen aseguruua ordaintzeko eta 4.000 euro inguru koloniar sortzeko. "Koloniar bakoitzak aterpetxo bat behar du, haretoki bat, eta janarirako eta uraren-

dako askak". Katuak harrapatzeko eta identifikatzeko behar dituzten materialak gehitu behar dira ere.

Laguntza

Udalak katu koloniar sortzeko aurrekontua onartu zeneko albistea egunkari batean publikatu zen, eta horren ondoren "okerrago" daudela salatu dute boluntarioak. "Lehen hainbat elkarteren laguntza genuen, Nueve vidas Beriain, Katsfelina, Su quinta pata... Katuen egoera zabaltzen zuten eta adopzioekin laguntzen ziguten, baina aurrekontua onartu zenetik uste dute dagoeneko kubrituta gaudela, eta laguntza eskatzen dugunean esaten digute dagoeneko badela hemen horretaz arduratzen denik". Elkarteek udalak kargu hartu duela uste dute, "baina bakarrik partida bat onartu du. Batzordean aurrekontu bat onartu dute, baina ez dute ezer gehiago mugitu. Hasten diren arte urte bat pasa daiteke".

BESTEAK BESTE, KATU KOLONIAK SORTZEKO AURREKONTUA ONARTU DU ALTSASUKO UDALAK

Zer egin behar da katu bat aurkitzean? "Udaletxera deitu. Udala arduratu behar da. Behar bada atean ere utzi. Legeak dio udalak hartu behar duela kargu. Udalak ikusten badu beste batzuk arduratzen ari direla, eskuak garbitzen ditu. Horregatik, udaletxera deitu behar da eta udaltzainek Maiteri deituko diote eta egoerak bidea hartuko du". Udalak kargu hartzen ez badu salaketa jarri behar dela esan du Montesinosek: "Esanez ez dakit nongo udalak ez duela legea betetzen. Denok egin beharko genuke, baina ez da egiten salaketa bat jartzea asko kostatzen delako". Sakanako zenbait udaletan egoera antzekoa edo okerragoa dela esan du Nueve vidas Beriain elkarteko idazkariak: "Animaliak ezin direla elikatu esaten dute, baina Espainia mailako animalien tratatu txarren kontrako lege bat existitzen da, eta ez baduzu elikatzen, tratatu txarrak dira". Beste udaletan animalia elikatuz gero bere jabea bihurtzen zarela diotela esan du, "baina Foru Legeak dio askatasunean bizi diren kaleko katuak udalarenak direla. Beraz, haiek mugitu beharko lituzkete kateak". Hildako katuak aurkituz gero ere udaletxera deitu behar dela azaldu dute.

Urratsak

"Guk momentuz ez dakigu ezer. Boluntarioak enteratu ginen udalaren aurrekontuaren onarpenaz Vickyk kontaktu zigulako, eta Vicky enteratu zen Nerea Mazkiaran kazetariaren bitartez; berak esan zion udalak onartuko zuelako partida eta berarekin hitz egin nahi zuela". Uztailaren 3an boluntarioek alkatetzarekin eta udalarekin bilera bat egin nahi dutela eskatzeko idatzi zuten, "gure egoera azaldu nahi dugu, eta azaldu dezaten zer egingen duten eta zeintzuk diren emanen dituzten hurrengo urratsak". Mezua bidali zuten, baina astekari hau ixteko momentuan ez dute erantzunik jaso.

Idea eta proposamen asko dituztela esan dute boluntarioek. "Adibidez, aurkitzen diren txakurrak izateko toki bat dago eta hor guk ere prestatu dezakegu katuak sartzeko toki bat, behintzat artatzen dituzte bitartean eta sendatu arte". Izan ere, gaur egun egoera txarrean dagoen katu bat aurkitzen dutenean "hemendik eta hortik galdetzen egon behar gara, ea nork duen bajearen bat edo gelaren bat...". Gehienek katuak dituzte, eta beraz ezin izaten dituzte katu gehiago hartu. "Baina batzuetan eramanen genituzke denak". Boluntario bakoitzak "ahal duena" jartzen duela esan dute. "Batzuk askoz gehiago, beste batzuk gutxiago. Egia esan, ez dugu asko eskatzen... Katuak egon ahal izateko eta elikatu ahal izateko toki bat".

"Katuak hor daudenaren kultura dago oraindik. Ehizatzen dutenez esaten digute ea zertarako ematen diegun janaria. Baratzean asko badaude palarekin eman eta listo. Kultura hori oraindik badago". Horrelako komentarioei aurre egin behar izan dietela salatu dute boluntarioek. "Karga emozionala ere oso handia da. Horrelako komentarioei aurre egitea eta katuak egoera horretan ikustea... Askok ez dira sendatzen eta ezin dugu askoz gehiago egin...".

Zenbait elkartek boluntario bezala trebatzeko laguntza eskaini dietela esan dute, "ikastaroak egiteko esan digute; beste-

KATUAK ZAINTZEN DITUZTEN BOLUNTARIOEK UDALAREKIN BILERA BAT NAHI DUTE

la, guk ez dakigu ezer. Ahal duguna egiten dugu, eta seguruenik gauza asko gaizki egingo ditugu". Momentu honetan inorena ez den lurtean sentitzen direla gaineratu dute boluntarioek.

Koloniar

Lizarran, Garesen edo Lekunberrin udalak katu koloniar eta legeak agintzen duena bete dutela azaldu du Montesinosek, "baina denbora behar da, eta batzuetan animaliek ez dute denbora hori". Irailean albaitariarekin eta alkatearekin bilera egin zuten udazkenean CER metodoa egin ahal izateko, katuak harrapatu eta esterilizatu, "momentu horretan egingarria delako umealdirik ez daudelako", baina egin ezenez momentu honetan "ezin ditugu katuak hartu ama bat izan daitekeelako". Katu asko daudela esan dute; "arazoa hori da". Boluntarioei galdetuta 70 katuen zentsua egin dute, "baina askoz gehiago daude. Hirurehun bat izan daitezke. Altsasu oso handia da, baratza zonalde asko ditu...", azaldu du Montesinosek.

Momentuz, boluntarioek eskatzen duten gauza bakarra udalarekin bilera bat da, "informazioa jasotzeko eta urratsak zeintzuk izango diren zehazteko. Esateko: lehenengo gauza katuak hartzea da. Ongi, bada goazen egitera". Informazio behar dutela esan dute. "Pauta batzuk markatzeko eta egiten joateko". Aurrekontua onartu aurretik ez dietela informatu kexatu dira boluntarioak, "badago jende asko honen atzean, eta ez zaizkigu informatu. Pozten gaitu partida onartzea, hobe berandu inoiz baino, baina informazioa behar da. Egunkariari esker enteratu gara. Baldin badago jendea mugitzen ari dena, gutxienez informatu".

"Badago jendea esaten duena: falta zena, dirua katuendako gastatzea. Diru hori ez da beste inondik kenduko; partida berri bat da. Errepideak konpontzeko dirua egoten jarraituko du, ez dute beste toki batetik kenduko katuei emateko". Horrelako mezuak ere entzun behar izan dituztela salatu dute boluntarioek. Haiek katuak laguntzen jarraituko dute, "udalak hori behintzat badu, lan egiteko prest dagoen jendea".

Kalean aurkitzen dituzten hainbat katu adopzioan jartzen dituzte 681 25 83 54 telefonoan Whatsapp bidez.



ASTEKOA

ANDREA CARRILLO JUANBELTZ

Uda: gorputzaren kaiola

Berriz ere, uda. Eta berarekin gorputzaren zainketa. Geroz eta hurbilago eguzkia, are hurbilago gorputzarekiko ardura. Beroarekin arropa gutxiago erabili ala bainatzeko aukera datorkigu. Dirudenez, zoragarria, hau guztia presio gordina izango ez balitz, noski.

Badirudi, urte osoko ezkutitze horren ondoren, gorputza argira atera behar dugula. Eta gorputz hori perfektu egon behar dela, bat batean. "Perfektu" hitzaren ezaugarriak konkretu xamarrak direlarik, ordea. Gorputzaren irudi berak, geure balioa adieraziko balu bezala, geure arrakasta puntua. Hara zoramena. Gainera, geure gorputzarekin liskarrean ibiltzen garen heinean, gainontzekoek ere hauxe bera gogorarazteko adierazpena dakarte "hara nola loditu zaren!" edota "ze guapo/a zauden!" komentarioekin. Inuzentek diruditenak, aldiz, begirunerik gabekoak beti.

Edonoren gorputzei buruz hitz egiteko erabiltzen dugun normaltasunak haserretzen nau. Hor aurrean geure gorputza egoteak eta existitze hutsak horretarako eskubidea emango baligu bezala, osasunaren izenean, osasunetik oso urrun noski. Pentsatzekoa honakoa. Gorputzari esker bizi gara, baina ez fisikoari esker, baizik eta bere funtzionamenduari esker, bere osasunari esker. Ekin diezagun honi buruz pentsatzeari. Agian zorte pixka batekin, mundu bizigarriago bat eraikitzen dugu gorputz guztiendako. Non, daukagun gorputza daukagula, honen aldaketak naturaltasunez onartuz, balio bera dugularik besteekiko. Non, honek ez digun gizartean lekurik emango.

Goazen gorputzen askatasunarekin elkarlanean jartzera!

HARA ZER DIEN

Festa eta aldarrikapena: ETXERA!!

SAKANAKO SARE ETA ETXERAT

Udararen etorrerarekin batera, festa eta aldarrikapena uztartzen diren momentuak non ahi topatzen dira gure herrietan. Festa, musika eta dantza, gure ondoan falta direnak gogoan izateko, eta hamai-ka une gozo bizitzeko egunak. Festaren magian murgiltzeko gogoia badugu ere, ezin dugu ahaztu urteetako gatazkaren ondoren oraindik konpondu gabeko ondorioak ditugula, eta, jakin badakigu, oraindik ere handiak direla sufrimendu eta gatazka garaietara itzularazi nahi gaituzten inertziak.

Zinez pentsatzen dugu badela garaia. Bada garaia "ETXERA" aldarrikapen bat izatetik denon lorpena izatera pasatzeko. Aurre-rapauso bat, denok irabazle egingo gaituena. Denok gara irabazle eskubideen urraketa bukatzean; denok gara irabazle salbuespen eta mendeku politikak bukatzean;

denok gara irabazle konponbidea-rieta elkarbizitzari ateak irekitzean.

Urrats garrantzitsuak eginda gaude gauden egoeran. Baina oraindik, salbuespen neurrien ondorioz oztopoz bete dute Unai, Popi, Luis eta Asierrek etxerako bidea. Presoen zati handi bat ari da etxerako bidea egiten: ikusi dugu Luis zenbait baimenekin kalean, hirugarren graduan eta dagoeneko espetxera bueltatu beharrik gabe dago gaur egun Asier. Esan beharrik ez dago guztiek betetzen dituztela baldintzak hirugarren graduan edo baldintzapeko askatasunean egoteko. Baina esan bezala, salbuespen neurriek oztopatzen dute oraindik etxerako bidea. Gaur azpimarra Juan Ramon Karasatorre "Popi"-ren egoeran jarri nahi dugu:

- Juan Ramonek 62 urte ditu eta 23 urte daramatza espetxean.

- 13 urteko zigorra bete zuen Frantziako espetxeetan, baina ez dizkiote urte horiek pilatu nahi. Espainian 30 urteko zigorra dauka.

- Salbuespen legerik ez balego, eta beraz, Europako irizpidea aplikatuko balitz, Frantzia bete-

tako zigorra akumulatuta, zigorraren ¼ beteta eta 3. graduan edo baldintzapeko askatasunean beharko luke.

- Frantzia betetako 13 urteak ez badizkiote akumulatzen, 2034. urtean amaituko luke zigorra. Ordurako 33 urte eginak izanen ditu espetxean.

Hau herri gisa ezin dugu onartu. Gatazkak utzitako hainbat ondoriok sufrimendua eragiten jarraitzen dute eta injustizia horrekin guztion artean amaitu behar dugu. Egun indarrean dagoen eta zigorra eta sufrimendua behar baino gehiago luzatzen duen salbuespen legedia indargabetzea behar bat da herri gisa etorkizunari ateak irekitzeko.

Zentzu horretan abuztuaren 3an, Etxarri Aranazko Plazan, 20:00etan *Salbuespena STOP! Etxera!* leloarekin egingen den Sakana mailako mobilizazioa gonbidatu nahi zaituztegu.

Bukatzeo, Sakanako eragile eta herritarrei, ETXERA aldarrikapena balkoi eta jaietako txoko guztietan presente egoteko gonbidapena luzatu nahi diegu.

Salbuespen neurriak STOP. ETXERA!!



BAZTERRETIK

ZIORDIKO LIBURUTEGIA

Udan irakurtzeko liburuak

Hementxe dituzue udan erraz irakurtzeko Ziordiko liburutegiko proposamenak:

Barkamena. Existituko balitz bezala/ Marana Travacio; Fernando Rey-k itzulua. Mendeku baten istorioa kontatzen digu Marana Travaciok. Greziar tragedia eta western garaia nahastu ditu eta indarkeriaren pre-

sentzia nabarmena da. Gizakia noraino iristeko gai den hausnartzera eramaten zaitu, eta horretaz gain, kontakizunaren garaia eta tokia ez ditu zehazten eta ondorioa horixe da, edozein lekutakoa eta momentukoa izan daitekeela. Giza izaera, justizia, indarkeria... nolakoak garen eta izan gaitezkeenari buruz gogoe- ta egiteko aukera paregabea.

Mundu zitalaren kontra/ Lizar Begoña. Betiko kiosko baten inguruan gertatzen diren istorioak ditugu liburu honen protagonistak. Udan girotuta daude, hiru ataletan banatuta: ekaina, uztaila eta abuz-

tua. Gazte bat Euskal Herri- tik Benidorm- era joaten da lan egite- ra. Liburuan izenik ez duen per- tsonaia hori erdigune hartuta landuko ditu: zahartzarora, garai bateko Benidorm eta gaurkoa, gazte eta zaharren arteko harre- manak, eta abar. Sentimenduz beteriko eleberria da, eta herri baten bilakaera, ona ala txarra, nolako izan den ikus dezakegu. Gainera, aitzakia ezin hobea dugu historian pitin bat zetera egiteko. Bi mundu ikus ditzakegu, alde batetik, betiko Benidorm, oro har, beti ezagutu dugun herri turistiko- a, eta beste alde batetik, herriko,

egunerokotasunean gertatzen diren egoerak. Esango nuke, BIZI- TZA, letra larriekin, dela liburu honen mamia. Oso gustura irakurtzen da.

Monogamoak/ Iñigo Astiz. Eguneroko errealtateari aurre egiteko umorea eta ironia erabil- tzen ditu Astizek. Oso ipuin des- berdinekin osatutako liburu bat da, eta oso ongi pasatzen duzu irakurtzen. Istorio askok barre gura sortzen dute, eta zeharo dibe- rtigarria egin zait irakurmena. Esate baterako, heriotzaren ingur- ruan jolas antzeko bat aurkezten digu eta barrea eragiten du, zalan-

tzarik gabe. Askotan, ekintza arrunta dena egoera surrealista bilakatzen du, eta lortzen du espe- ro ez duzun zerbaitekin aho zaba- lik geratzea. Irakurtzeko arina, erraza eta irribarrea sortuko dizuna. Erabat gomendagarria.

ERREDAKZIOAREN OHARRA

Joan zen asteo zerbakiaren Nicolas Arbizu Gabirondoren liburuaren berri eman genuen. Haren euskarazko itzulpena Sakanako Mankomunitatearen Euskara Zerbitzuak egindakoa da.



www.guaixe.eus

Maketatzailea:
Lune Trece Obeso
maketazioa@guaixe.eus

GK diseinu zerbitzua:
Ainara Santiago Langarika
info@gkomunikazioa.eus
619 821 436
Ainhoa Etxeberria Pikabea
gk@gkomunikazioa.eus

Administrazioa:
Gema Lakuntza Lopez
admin@guaixe.eus

Lege gordailua: NA-633/1995
Tirada: 3.200

LAGUNTZAILEAK



Erredakzio burua:
Alfredo Alvaro Igoa
erredakzioa@guaixe.eus

Erredakzioa:
Maider Betelu Ganboa
kirolak@guaixe.eus
eta Erkuden Ruiz Barroso
kultura@guaixe.eus

Irratia:
Eneida Carreño Mundiñano
irratia@guaixe.eus
948 567 074

Publizitatea:
Eneida Carreño Mundiñano
publi@guaixe.eus
661 523 245

Koordinatzailea:
Goizeder Anton Iturralde
fundazioa@guaixe.eus

ARGITARATZAILEA:
Guaixe Fundazioa. Foru plaza 23-1.
31800 Altsasu
948 564 275



Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua

Merkataritzaren alde

Udalek, Sakanako Mankomunitateak, Cedernak eta Sakanako Dendari, Ostalari eta Zerbitzuen Elkarteak (SDOZE) ibarreko merkataritza sustatzeko proiektua ondu dute

SAKANA

Ibarrean merkataritza sektore dinamikoa, egungoa, erakargarria, digitalizatua, jasangarria eta erresilientea lortzeko helburuz, Sakanako udal eta sektoreko eragileek bat egin eta plana gauzatu dute.

Horretan Cederna-Garalurren laguntza izan dute. Sakana 2027 plan estrategikoaren barruan merkataritza lantaldean adostutako ekintza bat izan da. Baina haren jatorria 2018an egindako Sakanako merkataritza sektorea-

ren diagnosian du. Planak 271.319 euroko aurrekontua zuen. Haren %80 Espainiako Gobernuaren eta Europar Batasunaren Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planak finantzatu du. Gainontzeko %20 udalek pagatu dute.




Saltokien eraldaketa

Hutsik eta zaindu gabe zeuden Irurtzun eta Etxarriko bina merkataritza lokal eta Altsasuko seitan haien itxura hobetu da, erakargarriago egin eta negozio berriak martxan jartzea sustatzeko.



Zero hondakin kanpaina

Sakanako 248 dendak bisitatu dituzte, saltokiak bezeroekin duen elkarreraginean sortzen den hondakin kantitatea murrizteko, eta prebentzio-praktikei eta bereizketa optimizatzearen inguruan hezteko.



Prestakuntza eta sentsibilizazioa


Dendariendako bi ikastaro egin dira: Bezeroarendako arreta, datu-baseak erabiliz eta bezeroen joerak eta portaerak aztertuz, bata eta, bestea, merkataritzaren kudeaketa hobetzea.

Dozena bat ekintza



Eraldaketa digitala

Saltokiak ikusarazteko eta saltzeko tresna eta euskarri digitalen edukia, erabilgarritasuna eta funtzionaltasunak egokitu, bateragarri egin eta integratu dituzte, horrela, osagarritasuna eta koherentzia lortzeko.



Sustapen kanpaina

Sakanako merkataritza sustatzeko eta dinamizatzeko kanpaina bat diseinatzea eta gauzatzea sare sozialetan, SakanaAPPn eta Sakanako Gida webgunean.



Ikusgarritasun ekintzak

Tokiko merkataritzaren irudi bateratua sortzea, *Sakana Dena Hemen* logotipoa. Irudi hori proiektuan garatutako jarduera guztien haria izan da, eta Sakanako tokiko merkataritzaren egungo irudia izan nahi du.



Pertsonen zenbagailuak

Altsasuko San Joan kalean pertsonak zenbatzeko sistema jarri da, kopurua eta horien ezaugarriak ezagutzeko (datak, iraupena, maiztasuna...), saltokiak beraien zerbitzua hobe dezaten.




Tokiko produktuen eskaintza

SakanaAPP aplikazioan, *Dastatu Sakana* irudiaren bidez, zuzeneko salmenta egiten duten hurbileko ekoizleak eta tokiko produktuaren aldeko apustua egiten duten saltokiak ezagutzeko aukera izango da.



Pantaila digitalak

Irurtzunen, Lakuntzan eta Altsasun totem edo pantaila digitalak jarri dira, gaur egungo informazioa eta tokiko eta herritarrendako interesgarriak diren merkataritzako iragarkiak zabaltzeko.



Hondakinen kudeaketa

Sakanako txikizkako merkataritzari zuzendutako sentsibilizazio kanpaina bat egin da, hondakinen murrizketa, berrerabilera eta ekonomia zirkularra sustatzeko.



Wifi sarea

Altsasuko merkataritza guneetan, San Joan kalean, esaterako, Wifi sare irekia ezarri da.



Seinaleak

Merkataritza-jarduera handiena duten udalerrietako sarbideetan (Irurtzun, Lakuntza, Etxarri Aranatz eta Altsasu) seinaleak jarri dira, herri bakoitzean dagoen merkataritza eskaintzaren berri emateko.



UZTAILAK 29-ABUZTUAK 2

10:00 Agurra, eguraldia, edukiak aurkeztu eta eguneko kanta

10:15 Pentsaren azalak

10:20 Albisteak eta kirolak

10:30 Hizketan

11:05 Solasaldia Karrape eta Aralar irratiarekin

14:00 Errepikapena

Hizketan

Uztailak 29 Ane Martija

Uztailak 30 Nerabeak eta telefonoak

Uztailak 31 Bertso saioa (Bertsoa.eus)

Abuztuak 1 Ainhoa Juaniz (TTap.eus)

Abuztuak 2 Agenda berezia





Emakumezkoa La Union elkartera sartzen.

Zuzendaritza berriak jubilatu elkarteari bizia eman nahi dio

Horrela adinduendako erakargarria bihurtzea nahi dute, jendeak elkartera joateko ohitura har dezan. Zuzendaritzaren helburua baita Altsasun "adineko biziak" izatea. Egoitza ahalik eta gehien txukundu eta modernizatu nahi dute ere

Alfredo Alvaro igoa ALTSASU

Altsasuko Jubilatu eta Pentsiodunen La Union elkartekeko presidente berria da Alberto Guzman Sanchez apirilaren 20az geroztik. Elkarteak duen bigarrena, 2008tik martxora arte Emilio Boulandier Maiza izan zelako. Presidenteak azaldu duenez, "zuzendaritza talde berriko kideak aktiboak dira, beti zerbait egiteko desiratzen daude". Presidente berriaren ustez, "elkarteari mugimendu dezente eman behar zaio. Bultzada on bat behar du eta gaude-nak horretarako prest gaude".

Guzman eta zuzendaritzako beste zortzi kideak elkarteari martxa hartzen ari zaizkio oraindik. "Ez da hain erraza. Finantza arloan egunean jartzeko bi hilabete eman ditugu. Ez zegoen beste munduko ezer. Aurreko zuzendaritzak bere modura eramanen zuten. Orain dena informatizatuta dugu. Eta, esaterako, ordainketak egiteko beti presidentea eta diruzaina egon behar dugu". Gaineratu duenez, "egiten dugunaren berri ematen dugu. Zuzendaritzaren asmoa da hiru hilean behin bazkideei informazio hitzaldi bat ematea, egin denaren eta egin nahi denaren berri emateko. Aldi berean, jendea elkartera joateko gonbidapena ere egiten dugu".

Gaur egun elkarteak gutxi gorabehera 430 eta 450 bazkide artean ditu. Bazkide kanpaina betean dago elkartera gaur egun. "Ederki doa, 60 bat bazkide berri egin dira. Ikusten dute jende gazteagoa gaudela, eta egiten ari garena ikusita konfiantza du".

Egindakoak, egitekoak

Guzmanek jakinarazi duenez, "ate automatikoak jarri ditugu sarreran. Edozein sar daiteke, laguntzailerik eraman gabe, esaterako, gurpildun aulkian doazenak. Egoitza ahal dugun gutzia modernizatu nahi dugu". Bestetik, elkarteak duen jarduera eskaintza zabaltzea pentsatzen ari dira zuzendaritzako kideak. Gaur egun, besteak beste, gimnasia, kognizio

Zuzendaritza berritzeko prozesuaz

Poteoan elkartera joaten zen Guzman eta "hura beheraka zihola ikusten genuen. Boulandierren osasuna ez zen ona. Zuzendaritzako kide batzuk proposatu zidaten ardura hartzea. Esan nien lehenik Boulandier zegoela". Batzuek harekin batera zuzendaritzatik joatekoak ziren eta beste batzuek segitu nahi zuten. Bitarte horretan presidentea hil zen. "Orduan zuzendaritzako batek esan zidan: edo zuk hartzen duzu edo hau pikutara doa. Zuzendaritzako lau kide zeuden baina inork ez zuen ardura hartu nahi". Nabarmendu duenez, "ona eta txarra kenduta, Boulandierren lanak oniritzia behar du. Hogei urtez presidente, izugarria da!"

Guzmanen iritziz, "Altsasuko adinekoez nahikoa ahaztu izan dira. Ez da nahikoa udalak festetan adinendako bazkari bat antolatzea. Dagoeneko ez doaz". Gaineratu duenez, "klubera dagoeneko ez zen inor joaten". Hori ikusita, zuzendaritzatik kanpo zeuden pertsona batzuekin elkartu zen Guzman. "Klubean zegoen egoeraren berri eman nien eta lagunduko ote zidaten galdetu nien". Baiezkoak eta ezezkoak jaso zituen. Presidentearen heriotzaren ondoren lekukoa hartzeko erregutu zioten. Eskaera onartu zuen. Elkartearen zuzendaritza berritze prozesuaren inguruan iritzia ez ematea erabaki du Guzmanek.

Beste hautagaitza batekoek jazotakoaren berri emanez ere esku-orriak zabaldu zituzten. Han jaso zuten, elkarteke zuzendaritzako zazpi kideetatik lauk uko egin zioten karguari martxoan, tartean lehendakaria, lehendakari ordea diruzaina eta idazkaria. Horren jakitun hainbat ildotako altsasuarrak elkartu eta lau kideren proposamena aurkeztu zuten apirilaren 11n. Horien artean zeuden Juli Alvaro, Josu Unamuno eta Josean Donlo. Aldi berean, Guzmanek bera buru zuen hautagaitza aurkeztu zuen, baina beste kideen izenik eman gabe, beste hautagaitzakoek azaldu zuten. Hori dela eta, bi zerrendatako kideak bilerara

deitu zituzten. Aurrenekoek azaldu dutenez, "zerrenda bakar batean aurkezteko jarrerak batzen saiatu ginen, baina Guzmanek esan zuen 'ideologikoki kontrakoak gara, beraz, ezin dugu elkarrekin joan' eta batera joateko aukeraren aurka egin zuen". Hori ikusita, jakinaraziz Guzmanen zerrenda inpugnatuko zutela bi arrazoirengatik: izen-abizenak ez emategatik eta epez kanpo aurkeztegatik.

Kexaren berri emanez notario errekerimendua aurkeztu zioten zuzendaritzari. Aurreneko zerrendakoek azaldu dutenez, "bozketa egunean zuzendaritzak epez kanpo aurkeztu ziren Guzmanen zerrendako kideak kendu zituen. Guk borondate ona

adierazteko, inpugnazioa kendu genuen". Gaineratu dutenez, "estatutuen arabera hautagaitza osoak edo indibidualak aurkezteko epea zabalitzen da. Zerrenda oso bakarra aurkeztu zen. Beraz, ez zegoen zergatik botoa eman. Gure zerrenda eta boluntarioa (Guzman) onartu behar ziren zuzendaritza taldea osatzeko". Gaineratu dutenez, "boto ematea oso giro tirabiratsuan egin zen, aurretik lau hautagaien zerrendaren kontra pozoitua. Bozketa aurretik, bitartean, eta ondoren gure kontrako oihua eta irainak izan ziren, klubeko etsaiak bagina bezala, eta klubeko partaideak izateko eskubidea ez bagenu bezala". Guzmanek 118 aldeko boto eskuratu zituen, 30 lau hautagaien zerrendak. Ohar bidez

estimulazioa eskaintzen du klubak. "Eskaintza zabalduz, jendea joatea nahi dugu. Zeren antolatzen diren jardueretan jendeak parte hartzen du". Azaldu duenez, "jarduerak adinekoendako ahalik eta merkeen izan daitezela saiatzen gara. Batekin eta bestearekin borrokatzen gara jende horrek eskaintza hori izan dezan. Parte hartzaile asko dago".

Elkartek Josefina Arregi klinika psikogeriatrikoarekin duen elkarlana nabarmendu du Guzmanek. "Hitzaldiak ematen dituzte elkartean. Berriki artrosiari buruzkoa eman dute, profesional batek etxean artrosia nola hobe daitekeen azaldu zuen. Ehun eta pasa entzule izan ziren". Osasun etxearekin ere elkarlanean ari da elkartea. "Bi hitzaldi izan ditugu, eta jendea joaten da". Burunda mendebaldeko Oinarritzko Gizarte Zerbitzuen Mancomunitatearekin ere harremanetan da elkartea.

San Joan bezperako afarian 108 bazkide elkartu zirela jakinarazi du. "Jendea pozik gelditu zen. Orain hondartzara joan nahi dute. Bada, Donostiarako egun pasako irteera antolatu diegu. Alde Zaharreko elkarte batean bazkalduko dute". Bidaien antolaketa elkartek lortzen duen diruaren araberakoa da. Guzmanek argitu duenez, "pentsio txikiak dituzten pertsonak ezin dute txango bakar batera ere joan. Horretaz zuzendaritzan asko eztabaidatu dugu. Jende horrenda-

ko ere txangoak antolatu behar dira. Nahi duenak jabetzeaz bazkalduko dezala, baina bere bazkaria eraman nahi duenak aukera izan dezala txangora joateko".

Egoitza 20 urte margotu gabe egon da eta hura txukundu nahi dute. Bestetik, "elkartean zerbait gertatuz gero ordu laurdenean han dagoen pertsona bat badugu ere". Horrelakoengatik, presidentek esan du "jendea ikusten ari da gauzak egiten ari garela". Azken finean, "adinekoen bizi kalitatea hobetu nahi dugu. Adinekoei dagokien moduko zerbitzua izan behar dute. Eta horretan aritzeak pozez betetzen gaitu".

Zuzendaritzako kideek karpitetan arakatzeko ikusi dute garai batean elkartean arteko jarduerak egiten zirela. "Horrek ere behe-rakada handia izan du, Altsasun behintzat. Horrelakoek bazkideak erakartzen dituzte, eta guk bazkideak elkartera joatea nahi dugu. Gaur egun 150 bat bazkide izanen dira astean behin edo bitan joaten direnak, gainontzekoak ez dira sekula joaten. Geroz eta jende gehiago dago. Jendeak gauzak egiten ditugula ikustea nahi dugu. Erakargarria izan dadila eta ongi pasa dezatela. Adineko jendeak bizi izan behar dute". Guzmanen iritziz, "adinekoek bizi egin behar dute. Gaur egun adinekoak sofán eroso eseri eta telebista ikusi, besterik ez dute egiten. Eta egunetik egunera makurtuago, isilago eta amorratuta daude. Hori saihestu nahi dugu".

azaldu dutenez, Guzman onartua izan zen soilik, eta dimisioa eman ez zuten hiru bokalekin zuzendaritza berria osatu zuen. Ondoren, inpugnatutako zerrandan zeudenak eta beste pertsonaren bat ere zuzendaritzan sartu dira. "Horretarako, hautagaitzak aurkezteko epea egon beharko luke", adierazi dute lauko hautagaitzakoak.

Bi abokaturekin kontsultatu dute gertatutakoa eta "biek zuzendaritza taldean egoteko eskubide osoa genuela esan ziguten". Haien iritziz, zuzendaritzak "elkarteko estatutueta jasotakoa ez du bete eta ez dute zuzen jokatu". Horregatik, zuzendaritzari "jarrera berriro kontsideratzeko

eskatu genuen, alkatearen bitartekaritza eskatu genuen". Gauzak ez ziren aldatu. Azaldu dutenez, "gure asmoa ez da auzitan aritzera, baizik eta elkarlanean aritzea. Baina elkartean eta herritarren aurrean argi utzi nahi dugu lau kideen kontra erabili diren metodo eta prozedurekin". Gaineratu dutenez, "adineko pertsonen alde lan egin nahi dugu. Altsasun 65 urte baino gehiago dituzten 2.000 pertsona inguru gaude eta guztiok herri osoari irekita egongo den erakunde bat merezi dugu, eta ez 'gettho' itxia, batzuek nahi duten moduan". Eta berretsi dute adineko altsasuar guztiak elkarteko partaide izateko eskubidea dutela.

Arruazun estalpearekin bueltaka dabilta

Gobernuak dirulaguntza ukatu dio. Eginen den tokiko zorua ere berritu behar da eta aurrekontua asko handitu da. Bestalde, mediku kontsultategia itxita, espazioak erabilera berriak izanen du. Udala hirigintza planarekin zer egin aztertzen ari da

Alfredo Alvaro Igoa ALTSASU

Arruazuko Udalaren aurtengo aurrekontuan 154.914,70 euroko sarrerak, aurreko urtean baino 53.011,03 gutxiago, eta 149.239,21 euroko gastuak, joan zen urtean baino 387,61 euro gehiago daude. Gorka Ovejero Ganboa alkateak azaldu duenez, "herri txikiotako aurrekontua beti berdina da. Baso aprobetxamendu baten salmenta edo etxe batzuen erakuntzagatik ordaindu beharreko tasak dira aldatu dezaketenak". Aurtengoan sarrera gutxiago daude aurreneko arrazoiengatik.

Arbazarren eta udalaren nahia da ostatuaren eta elizaren artean, gaur egun zuhaitzak dauden inguru horretan estalpe bat egitea. "Nafarroako Gobernuaren Toki Azpiegitura Planeko dirulaguntza deialdira aurkeztu genuen proiektua eta ukatu egin ziguten. Gobernuak esan ziguten estalpe bat ez dela dotazio eraikin bat. Baina herri txiki batean, bada, han egiten dira bazkariak, kontzertuak..." azaldu du kexu alkateak. Finantziario bide hori itxi diotela ikusita Arruazuko Udalak beste finantziario bide bat du begiz jota: Landa Garapenerako Programa. Eskaera eginen du udalak. Onartuz gero funts horretatik 60.000 bat euro jaso lituzke udalak.

Estalpea jaso nahiko luketen tokia da euri uren kanalizazioa jarri gabe dagoen Arruazuko espazio bakarra. Udalak lan horiek aurten egin nahi ditu, estalpea egiten denerako dena prest izateko. Lan horiek egiten direla baliatuta zahartuta dagoen haurrendako jolas parkea kendu eginen du udalak. "Frontoiaren beste aldean, elkartean ondoko belardian berria jarriko dugu", argitu du alkateak. Lan horiek aurten egin nahi dituzte. Ovejero gaineratu duenez, "urbanizazio lanak eta estalpea bera egitea 200.000 euro inguruko aurrekontua izanen lukeela uste



Herriko etxearen eta elizaren artean egin nahi dute estalpea. ARTXIBOA

"FRONTOIAREN BESTE ALDEAN, ELKARTEAREN ONDOKO BELARDIAN JARRIKO DUGU JOLAS PARKE BERRIA"

genuen. Baina izugarri garestitu da eta aurrekontua 428.000 eurokoa da gaur egun". Parte hartzearen bidez egindako estalpearen diseinua garestia da eta aztertu beharko dute hura edo besteren bat egiten duten.

Bestalde, Arruazun dagoeneko ez du mediku kontsultategirik eta arbazuarrak Uharteko kontsultategira joan behar dute. Egoera berean daude inguruko beste herri txiki batzuk. Herriotako udal ordezkariak Osasunbideako arduradunarekin elkartu ziren eta "Uharteko Arakilgo kontsultategia indartzeko eskatu genion. Besteak beste langileen bajak daudenean lehen egunetik ordezkatzeko. Eta etortzen diren mediku edo erizainak ordutegi bera izan dezatela, askotan ez baita horrela", azaldu du alkateak.





Kadete mailako sakandarrak: Aratz Mendoza, Jon Orella, Ekaitz Berdud, Xabat Arraiza, Aitzol Zelaia eta Oihan Andueza.

Sakanako triatloi festa ederra

TRITATLOIA Sakanako XXII. Haur Triatloia eguraldi eta baldintza ezin hobetan jokatu zen Urdiango Aitziber igerilekuan. Erik Chaves lakuntzarra kimuen mailako txapelduna izan zen, eta kadeteetan Aitzol Zelaia laugarren sailkatu zen

Maidar Betelu Ganboa URDIAN Urdiango Aitziber igerilekuek eta Urriztiko, San Pedroko eta Basoitxi inguruko paraje ederrek Sakanako Mankomunitateak antolatutako Sakanako XXII. Haur Triatloia hartu zuten larunbatean. Guztira 60 triatleta inguru lehiatu ziren, tartean Mank-ek antolatutako Sakanako triatloi campusean parte hartutako gazteek. Proba Nafarroako Kirol Jokoetarako baliagarria zen. Guztia antolatzen Mank-eko Kirol Zerbitzuko teknikari Amaia Gerrikagoitia zegoen, Sakanako Triatloi Taldeko kideekin eta Sakanako triatloi campuseko monitorean Ekhi Congilekin eta Oihan Sotorekin batera.

Joan zen urtearekin alderatuta, zertxobait jaitsi zen parte hartzea. Igeriketa, txirrindularitza eta atletismoa batzen dituen probak, kirol konpetentzia han-

dia izateaz aparte, kirol gogorra da. Azkenean, hiru diziplinetan ongi moldatu beharra dago, eta horrek entrenamendu gehiago eskatzen du. "Triaatloia oso-oso gogorra da" berresten zuten Oihan Sotok. Triatloi campusean "oso gustura" ibili direla gaineratu zuten monitorea. "Igeriketa Arbizuko kiroldegian lantzen genuen, eta txirrindularitza eta korrika inguruetan. Azkeneko egunetan Sakanako Haur Triatloia prestatzen aritu ginen".

Lehiatzen goiztiarrenak jubnilak eta kadeteak izan ziren. Bi kategoriek elkarrekin osatu

SAKANDARRAK TXUKUN IBILI ZIREN. GEHIENAK SAKANAKO TRIATLOI CAMPUSEAN TREBATU ZIREN

zuten proba, distantzia berbera zutela: Aitziber igerilekuan 405 m igeri edo 15 luze egin; bizikleta hartu eta 8 km osatu, eta 2,2 km korrika egin. Nafarroako Triatloi Federazioko epaileek materialaren kontrola egin zuten, eta guztia ongi zegoela ziurtatu zuten. Tartean zegoen Monica Zubillaga nazioarteko epaile lakuntzarra. "Hamabost luzeak zuek zenbatu behar dituzue, guk ezin dizuegu ezer esan" azaldu zien triatletei. Eguraldia, bikaina: hasieran freskoa, epelago ondoren. Tuterako Arena taldekoek ura probatzea eskatu zieten epaileei. "Normalean hotza egoten da, baina aurten epela eta guzti dago" zioten, harrirituta.

Beraz, baldintza guztiak alde zirela hasi zen proba. Jubeniletan Aimar Arizkunek (Saltoki) hegana egin zuen. Kronometroa

32:20 minututan gelditu zuen, Eneko Aierdiri (Antsoain) minutu pasa ateraz (31:39). Emakumezkoetan Uxue Cortes (Tri-Ur Gazia) izan zen azkarrena (41:11), Irati Siciliaren (Arenas) aurretik (42:18).

Aitzol Zelaia, lehen sakandarra

Kadeteen mailan sei sakandarri lehiatu ziren, Sakana Triatloi Taldeko Oihan Andueza, Ekaitz Berdud eta Aitzol Zelaia altsa-suarrrak, Xabat Arraiza lakuntzarra eta Jon Orella etxarriarra, eta Saltoki taldean dabilen Aratz Mendoza arbizuarra. Kategoriarik honen izan zuen parte hartzerik handiena. Gizonezkoetan Victor Fernandez (Saltoki) gailendu zitzaion (32:13) Eneko Calvori (Antsoain, 32:57), eta Mikel Señasek (Hiru Herri) osatu zuen podiuma (33:12). Aitzol Zelaia postu bat beherago sailkatu zen, laugarren (35:17). Ekaitz Berdud eta Oihan Andueza batera iritsi ziren, Berdud segundo bat aurretik (36:33), zortzigarren, eta Andueza bederatzigarren (36:34); eta Xabat Arraiza hamaikagarren sartu zen (37:25). Jon Orellak lehen triatloia zuen eta igeriketa zatia egin zitzaion gogorrena; hor galdu zuen denbora gehiena, baina gero behetik gora egin zuen eta hamabigarren sailkatu zen (38:24). Aratz Mendozak (Saltoki) hamalagarren bukatu zuen (42:08), gau txarra pasa eta gero, nahikoa. "Asko nekatu zela" aitortu zuen.

Kadeteen emakumezkoetan, Tuterako Arenas taldeko triatletak gailendu ziren. Maria Lainez izan zen azkarrena (34:39), Marta Gamen taldekideari 2 minutu pasa aterata (34:39).

Haurren mailan (405 m igeri, 8 km bizikletan eta 2,2 km korrika) ez zen triatleta sakandarririk lehiatu. Emakumezkoetan Naroa Arizkun (Saltoki) izan zen txapeldun handia (20:48), eta gizonezkoetan, Pablo Alcaide (Saltoki, 17:47). Minutu pasako alde atera zion Lander Anduezari (Trikua, 18:50).

Chaves, txapelduna

Kimuen mailan 189 m edo 8 luze osatu behar izan zituzten, 3 km bizikletan eta 750 m korrika. Gizonezkoetan lehiatutako lau triatletatik hiru Sakana Triatloi Taldekoak ziren. Erik Chaves lakuntzarra gailendu zen (17:44), alde handiz. 3 minutu pasa atera zizkion Aiert Ruiz de Escudorori (Hiru Herri). Haitz Alicante (Sakana) hirugarren izan zen, eta Aiert Flores (Sakana) laugarren. Emakumezkoetan ez zen partaiderik izan.

Benjaminen mailan (108 m igerian, 1,5 km bizikletan eta 350 m korrika), emakumezkoetan Olivia Burrini (Arenas) izan zen azkarrena (12:36). Ane Satrustegi (Sakana) hirugarren sailkatu zen (12:49), eta Katixa Apalategi (Sakana) laugarren (13:20). Gizonezkoetan Ireber Salas (Hiru Herri) gailendu zen (11:01).



Ekhi Congil eta Oihan Soto, campuseko monitorea.

Campusean, gustura

Ekhi Congilen eta Oihan Sotoren gidaritzapean trebatu dira neska-mutil sakandarrak Sakanako triatloi campusean. "Oso gustura ibili gara" azaldu zuten monitorea. Urdiainen ikasleen lana jarraitu eta gidatu zuten. "Ongi ari dira".

Igeriketa, bizikleta eta korrika



Kadeteak eta juniorrak, igeriketa proban.

Igeriketa Urdaingo Aitziber igerilekuetan jokatu zen Sakanako Haur Triatloiko lehen segmentua: igeriketa. Triatletek egin beharreko luzeen kontaketa egin behar zuten. Irudian, Monica Zubillaga epailea, probaren jarraipena egiten.



Aitzol Zelaia, trantsizio gunetik ateratzen.

Txirrindularitza Igeriketa lana bukatuta, trantsizio gunean bizikleta hartu eta Urrizti, San Pedro eta Basoixitik barna buelta ederra eman zuten triatletek. Igeriketan horren fin ez dabiltzanak galdutako denbora berreskuratzeko aprobeztatu zuten.



Erik Chaves lakuntzarra ikusgarri aritu zen. UTZITAKOIA

Korrika Bizikleta utzita, Urriztin aurrera egin zuten triatletek azken segmentuari, korrika tarteari, ekiteko. Kimuen mailan Sakana Triatloi Taldeko Erik Chaves oso fin aritu zen; 3 minutu pasa atera zizkion bigarrenari.

Iker Gomez, Europakoa eta Mundukoa prestatzera

TXIRRINDULARITZA Iruñerriko Itzulian bigarren izan da junior altsasuarrak, eta orain "taldearekin disfrutatzea eta selekzioko hitzorduak prestatzea" du helburu. Emakumezkoak Iruñerriko Itzulian zentratuta daude

M.B.G. SAKANA

Junior mailako 38. Iruñerriko Itzulian Iker Gomez altsasuarrak (Qesos Albeniz) lehia oso estua izan zuen Espainiako selekzioan taldekide duen Hector Alvarezekin (Lucta). Azkenean, Bendormeko txirrindularia izan zen txapeliduna eta Gomez bigarren, denbora berean. Altsasuarrak Itzuliko balorazio positiboa egin du –hirugarren etapa irabazi zuten, orokorrean bigarrena, eta lehen nafarra izan da–, eta argi du zein den hurrengo erronka, "taldearekin disfrutatzea, eta datorrenerako ongi prestatzea". Izan ere, irailaren 11tik 15era Europako Txapelketan ariko da,



Gomez eta Alvarez. MARTIN EARLY

selekzioarekin, Limburgon, eta irailaren 21etik 29ra Mundiale-tan, Zurichen.

Gaur erabakiko da

Emakumezkoen IV. Iruñerriko Itzulia gaur despedituko da, Iruñean jokatu den hirugarren eta azken etaparekin. Bertan lehiatzen ari dira Timac Agroko Ane Beltran de Heredia eta June Etxeberria eta Beratzako Ane Berastegi eta Siets Goikoetxea sakandarrak. Guaixen inprentara joateko garaian oraindik ez genuen bigarren etapako emaitzaren berririk, baina etapa garai-pena eta nafarren sailkapena ziren sakandarren helburuak.

Tenis rankinga, erabakita

TENISA Ekainaren 22an Altsasuko Tenis Rubor Elkarteko I. Rankingeko finalak jokatu ziren, giro onean. 16 urtetik azpiko finalean, Unai Zelaia gailendu zitzaion Aimar Maciari, eta 16 urtetik gorako kategorian Asier Arratibelek Ion Zubiria hartu zuen mendean. Ekitaldia Zelandi kirodegiko tenis pista berriaren mustutzea egiteko probestu zen, Javier Ollo alkatea bertan zela.



TENIS RUBOR

Elkartasunezko saskiratzeak

SASKIBALOA Larunbatean 3x3 Saskibaloia Txapelketa Solidarioa jokatu zen Ziordian, gaitz arraroa duen Markel Carmonaren alde. 565 euro bildu ziren. "Oso pozik gaude, ekaineko lasterketan bildutakoari gehituta, aurten guztira 7.000 euro bildu ditugulako. Kirol goiz ederra izan zen" azaldu du Jose Ramon Ramirezek. Altsasu, Agurain, Lizarra eta Iruñeko partaidea bildu ziren.



ZIORDIKO RUNNING TALDEA

Erkuden Ruiz Barroso ETXEBERRI

Diskoarekin "pozik" dago Ane Martija abeslari etxeberriarra. *Bidean aurrera* lau abestiz osatutako EPa kaleratu du: *Cuestión de suerte, Beti berdin, Guztia soberan* eta *Seres de Noche*. Lehenengo aldiz gaztelaniazko abestiak kaleratu ditu. Gorka Urbizuren kontzertuaren aurretik jo zuen, Zentralen. "Jarraitzeko gogoarekin" dago.

Nondik datorkizu musika zaletasuna?

Txikitatik datorkit. Aitari musika asko gustatzen zaio eta familian ere musika gustuko izan dugu. Txikitan Irurtzungo musika eskolan musika ikastera sartu nintzen. Profesionalizatzen 2021ean hasi nintzen; orduan hasi nintzen kontzertuak ematen eta horrekin batera nire lehenengo abestia kaleratu nuen. Ordutik, abesti berriak grabatzen eta kontzertuak ematen joan naiz.

Musika ogibidea izatea amets bat zen?

Bai. Txiki-txikitatik amets bat zen. Gurasoei galdetzen badiezu, etxean eta herriko elkartean egoten nintzen kontzertuak ematen. Zortzi urterekin! Amets bat zen. Musika grabatzea eta egitea gustatzen zitzaidan eta hori egin nahi nuen.

Nolakoa izan da ibilbidea? Nola garatu zara?

Lehenengo abestia grabatu nuen zerbait egin behar nuela pentsatuz. Momentua zela pentsatzen nuen. Inongo helmugarik gabe. Musika grabatzen nuen eta ateratzen nuen. Hurrengo urtean beste abesti bat kaleratu nuen, eta inguruko herrietatik kontzertuak ematen hasi nintzen. Ezagutzen ninduen jendeak deitzen zidan kontzertu akustikoak emateko. 2023. urtean hasi nintzen gehiago sakontzen eta disko honen plangintzarekin hasi nintzen. Horrekin lan gehiago izan dut, pentsatu zein momentutan atera abestiak eta abar. Aurreko urte-tik egun arte plangintza gehiago izan duen prozesu bat izan da.

Nolakoa izan da diskoaren prozesua?

Nafarroako Music Commission edo Nafarroako Musika Batzordearen barruan nago eta bertako Fernando Garayoarekin elkartu nintzen eta berak lagundu zidan prozesua nola antolatu eta abar. Hasieran zerbait ematen zidan, ez zen beldurra, baina ez nekien gaztelaniazko abesti bat kaleratu edo euskarazkoa. Nik gehie-

"Txikitatik amets bat izan da musika ogibide izatea"

ANE MARTIJA ABESLARIA

Zortzi urterekin etxean eta elkartean kontzertuak ematen zituela esan du; orain lehenengo diskoa kaleratu du: 'Bidean aurrera'



Ane Martija abeslaria. UTZITAKOA

netan euskaraz egiten dut, baina diskoan bi abesti gaztelaniaz daude. Nire inguruan euskaraz egiten da, baina gaztelaniaz ere, eta nire gurasoek adibidez gaztelaniaz egiten dute. Orduan, abestiren bat gaztelaniaz sortu behar nuela pentsatzen nuen. 2022tik atera nuen azken abestitik aurtengo lehenengora ez nekien gaztelaniazko saltoa egin edo euskarazko bat publikatu. Buruhauste pixka bat izan zen. Azkenean, erabaki nuen diskoa zerbait berria zela eta gaztelaniazko abestiarekin hastea erabaki nuen hori ere egiten dudala erakusteko. Argi nuen gutxienez beste hilabete bat utzi behar nuela beste abesti bat ateratzeko eta bitartean hurrengo abestiak grabatzen joan naiz eta gutxina-ka ateratzen joan dira. Abesti bat berezia izan da, *Guztia soberan*, pilotariekin bideoklip bat egin nuelako. Azkeneko kanta ere kontzertuetan jo izan dut, baina berria izan da.

Amari eskaini diozu gaztelaniazko lehenengo abestia, ezta?

La Oreja de Van Gogh taldearen aspaldiko kantetan inspiratu naiz *Cuestión de suerte* abestira-

"PILOTARIEKIN ETA NAFARROA ARENAN BIDEOKLIPA GRABATZEA BAI IZAN DELA AMETSA"

ko, amari pila bat gustatzen zaio-lako LOVG. Amaren abestia da. Kotxean beti entzuten genuen LOVG diska bat, abestiak buruz dakizkigu.

Eta nola sortu zen pilotariekin bideoklipa egiteko ideia?

Abesti hori orain dela urte eta erdi gutxi gorabehera sortu nuen. Telebistan pilota ikusten ari nintzen, ez zegoen anaia (Julen Martija) jokatzeko ez ezer, eta pilotari bat lesionatu zen. Orduan, Aitor Elordi, aurkaria, triste agertu zen irabazi zuelako baina aldi berean lagunak mina hartu zuelako. Inspiratu ninduen eta momentuan abestia atera zen. Diskoa hau atera behar nuenean banekien abesti hau joango zela, eta Juleni esan nion: Zergatik ez dugu bideoklip bat grabatzen eta lagun pilotariei parte hartzeko esaten diezu? Nik haiekin hitz egin nuen ere, azkenean ezagunak direlako; kasualitatez Aitor ez nuen ezagutzen eta bera agertzea nahi nuen, baina baietz esan zidaten; Julen Martija, Unai Laso, Jose Javier Zabaleta eta Aitor Elordi agertzen dira. Fernando Garaioak esan zidan Arenan grabatu ahal genuela eta horrela sortu zen. Hori bai zan zela ametsa. Hasieratik egiteko prest agertu ziren eta egia da grabazioa luzatu zela, baina horixe ibili ginen. Emaitza oso polita izan da.

Gorka Urbizuren Zentraleko kontzertuaren aurretik jo zenuen. Zer nolako esperientzia izan da?

Ezin sinetsi. Esan zidatenean ea posible nuen Gorka Urbizuren aurretik Zentralen jo, esan nuen: Benetan? Mezua aitari erakutsi nion ea broma zela galdezka. Pasada bat da. Aita Lekunberrikoa da eta azkenean betidanik ezagutzen dut, nor ez du Gorka Urbizu ezagutzen? Oso berezia izan da. Gainera, bitxia da baina nik banituen lagunekin kontzertura joateko sarrerak larunbaterako. Orduan, ostiralean kontzertua eman nuen, eta larunbatean ikus-entzule bezala egon nintzen.

Nola aldatu dira zure zuzenekoak?

Gehienbat aldatu da orain nire erreperitorioa nirea dela. Horrek pila bat laguntzen dit; abesten erosoago nago. Hasieran pila bat hitz egiten nuen, eta orain abestiaren aurretik zerbait esaten dut, baina sentitzen dut kontzertuak jarraituagoak bezala direla. Publikoari nirekin abesteko esaten diot ere.

Izan giltzarri!



Gorka Ovejero Ganboa Arruazuko alkatea

Gazte gaztetatik euskaltzale amorratu bat izan naiz eta horregatik Beleixen egin nintzen bazkide.

Gaur egun eskatzen dizuet Guaixe fundazioko bazkide egitea.

Izan zaitez giltzarri!



[guaixe.eus/
kideak](https://guaixe.eus/kideak)

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENEKO 13:00AK

BAINO LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 / 661 523 245 / kultura@guaixe.eus

OSTIRALA 26

URDIAIN Liburu aurkezpena.

Nicolas Arbizu iturmendiarraren *Santa Marina - Trinitatea* Bakaiku, Iturmendi eta Urdiaingo baseliza liburuaren aurkezpena.

19:00etan, auzoan.

ALTSASU Kontzentrazioa.

Extera Azken ostirala elkarretaratzea. 19:30ean, udaletxearen aurrean.

IRURTZUN Kontzentrazioa.

Extera Azken ostirala elkarretaratzea. 20:00etan, San Martin kalea, 7 zenbakian.

ARBIZU Kontzentrazioa.

Extera Azken ostirala elkarretaratzea. 20:00etan, plazan.

ETXARRI ARANATZ

Kontzentrazioa.

Extera Azken ostirala elkarretaratzea. 20:00etan, plazan.

ETXARRI ARANATZ

Kontzertua.

The Traversers taldearen kontzertua, Kultur 2024 programaren barruan. 21:00etan, plazan.

ALTSASU Zuzeneko.

Prácticamente Perfectas podcastaren lehenengo denboraldiaren azken kapitulu zuzenean.

22:00etan, Haritza Tabernan.

LARUNBATA 27

LAKUNTZA Auzolana.

Gazteekin auzolana: 12 eta 16 urte bitarteko gazteak. Lana: bankuak margotu. 09:00etatik 13:00etara, plazan.

LAKUNTZA Txirindularitza.

Eskolen mailako Lakuntzako lasterketa, Aralar Txirindularitza Taldeak antolatuta. Ginkanak eta 1.000 metroko zirkuituan lasterketak. 16:00etan, plazan eta Larraineko pistan.

IGANDEA 28

ALTSASU Azoka.

Ganbarazelai bigarren eskuko azoka. Musika, pintxo pote eta zuzeneko musika David Comin 215 DJ Garraxi Irratia Checkpoint 3.0.

09:00etatik aurrera, Iortia zabalgunean.

ALTSASU Ibilaldi informatiboa.

EH Bilduk antolatutako Basoixira ibilaldi informatiboa, gunearen eta inguruaren (Dantzaleku eta San Pedro) egoera ezagutzeko eta bere proposamenak bertara ikusteko eta ezagutzeko.

11:00etan, hilerrian.

ASTELEHENA 29

ALTSASU Elkarretaratzea.

Sakanako Pentsiodunen Mugimenduaren Pentsio duinen aldeko kontzentrazioa. 12:00etan, Zumalakarregi plazan.

ASTEARTEA 30

LAKUNTZA Ur jolasak.

Tasubinsarekin jardunaldi ludiko inklusiboa Sakanako gazteei bideratuta: uretako jolasak. 11:30ean, kultur etxean.

OSTEGUNA 1

URDIAIN Bakarrizketa.

Inixioren bakarrizketa. 19:00etan, igerilekuan.

OSTIRALA 2

OLATZAGUTIA Futbola.

Futsal 24 orduak, Maisueneak antolatuta.

18:00etan, futbol pistan eta kiroldegian.

ETXARRI ARANATZ Kontzertua.


Aupa Etxarri! ekimena, etxarriarrek antolatuta udalaren laguntzarekin. Plazan.

21:15 Howdy Bluegrass taldearen kontzertua.

22:30 Gwendal taldearen kontzertua.



IRURTZUN Luisa Aldaburu artistaren artelanaren erakusketa. Uztailaren 31ra arte. Pikuxar tabernan.



ETXARRI ARANATZ Mikel Montesinos argazkilari altsasuarraren Beste begirada bat erakusketa. Irailaren 9ra arte. Etxarriko Kanpinaren tabernan.

BAZKIDE ZOZKETA

Uztaileko saridunak

1. SARIA
Begoña Mundiñano Garziandia (*Etxarri Aranatz*)

2. eta 3. SARIAK
Iragartze Selva Aristizabal (*Urdian*)
Maite Bakaikoa Navarro (*Lizarraga*)
Jone Pelaez Fernandez (*Altsasu*)





DUELA 25 URTE...



Zangitun enpresa bat?

Nasuvinsa enpresa publikoak Altsasuko Udalari eta jabeek Zangitun lur sailak erosteko eskaintza egin zien: 600 pezeta (3,6 euro) metro karratuko. Jabeak aste batetik bestera Zangituko dermioko lur guztiak saldu edo ez erabaki behar izan zuten. Guztira 280.000 m². Egitasmoak aurrera egiteko lurjabe guztiak alde egon behar zuten. Udala eta jabeek batzarra egin zuten garilaren 22an, azalpenak jaso eta iritzia emateko. Gonbarri enpresak 50 lanpostu inguru sortu nahi zituen.

Er^viti aluminio PVC

Akaborro industrialea 13 Irurtzun | 948 500 813 | info@aluminioserviti.es

LEIHOAK, ATEAK, BALKOI ETA TERRAZEN ITXITURAK

Erakusketa Irurtzunen

Kalitatea, harrera ona
eta prezio ezin hobea

FESTAK

BAKAIKU FESTAK

UZTAILAK 26 Ostirala

BGAREN AIZTI EGUNA

12:00 Meza adinekoen omenez.

13:30 Pantxo Balbuenaren kontzertua, plazan.

13:30 Auzatea.

Japoniar bonbak eta buruhandiak.

14:30 Jubilatuen bazkaria eta omenaldia, elkartearen.

15:00 Bazkaria, Aiztin.

Gazte asanbladak antolatuta.

16:30 Mozkor jolasak.

Gazte asanbladak antolatuta.

18:00 Pilota partiduak:

Haitz Larrañaga – Tasio Arbizu /

Laihotz Aguirre – Oihan Palacios

Unai Perez – Oihan Lopetegi / Oier

Mendinueta – Adur Huarte

Asier Zubiria – Alain Berastegi /

Xabier Etxeberria – Jokin Olarra

18:00 Elektropilarekin kalejira.

Gazte asanbladak antolatuta.

18:30 Emakumeen pala partidak.

20:00 Auzatea.

00:30 Kontzertuak: Guri Bost,

Kaparrak eta DJ Jotatxo.

UZTAILAK 27 Larunbata

12:30 Puzgarriak, eskolako belardietan.

13:00 Bakaikuko, Arbizuko, Etxarriko eta Altsasuko Kantuz.

Zarata txarangarekin kalejira, herrian zehar.

13:30 Auzatea jubilatua eskainita.

17:00 - 20:00 Puzgarriak, eskolako belardian.

18:00 Tondatxondak Debetsio eta

Jaiak Kiki, Koko, Moko pailazoen

ikuskizuna, Gabriel Aristiren

eskutik.

19:00 Ping pong txapelketaren

finala.



BAKAIKU Etxajua lehertzearekin batera, Txorongo txarangak festari aurreneko doinuak jarri zizkion. Santos plazan elkartutakoek ttuntuneroaren deia segituz, plazara atera eta herriko zortzikoa dantzatu zuten.



ARAKIL Santos egunarekin Arakil Eguna ospatu zuten arakildarrek. 2024an jaiotako hurrei zapia jarri zieten eta ondoren ermitaren aurrean dantza egin zuten.

20:00 Auzatea Barnetegiak eskainita.

Japoniar bonbak eta buruhandiak.

Genozidio gelditu, Bakaiku Palestinarekin herri argazkia, plazan, herri mugimenduak antolatuta.

20:00-22:00 DJ ONFiesta.

22:00 Zezensuzkoa.

22:00 Herri afaria.

00:00-03:30 Lehian taldarekin dantzaldia.

01:00 DJ Boletus Rumberus, gaztetxean.

Gazte asanbladak antolatuta.

03:30 D-Teta, plazan.

Herri mugimenduak antolatuta.

UZTAILAK 28 Igandea

BGAREN MOZORRO EGUNA

13:00 Sakanako trikitilariak, herrian zehar.

13:30 Auzatea.

14:30 Rock eguna: bazkaria, eskoletako belardian.

15:00 Mozorro bazkaria.

Gazte asanbladak antolatuta.

16:30 Bingo musikatua.

Gazte asanbladak antolatuta.

17:00 Rock eguna: Sinonimo de Lucro taldearen kontzertua.

18:00 Benito Rosen ikuskizuna.

20:00-22:00 Atikipunk taldearen kontzertua.

20:00 Auzatea.

Japoniar bonbak eta buruhandiak.

22:00 Zezensuzkoa.

00:00-02:30 Ezpika taldearekin dantzaldia.

OLATZAGUTIA

SANTA ANA FESTAK

UZTAILAK 26 Ostirala

11:30 Erraldoien eta buruhandien irteera, Domingo Bados eskolatik.

**JARRAI GAITZAZU
INSTAGRAMEN !!!**

eta horrela gure produktuak ezagutuko dituzu, nola egiten dugun lan, gure dendak eta salmenta puntuak... Baina hainbat lehiaketetan ere parte hartuko duzu, promozioekin onurak izan, ideia handiak... eta askoz gehiago ere.



@panesamayaogiak

Amaya

OGITEGIA
1994-1999-2004



OLATZAGUTIA Olaztiko Santa Ana festen hasierako etxajua Yala Nafarroa Palestinarekin ekimeneko kideek piztu dute. Eta joan zen urtean jaiotako umei ongi etorria egin zien udalak.

UZTAILAK 28 Igandea

11:00 Meza.
11:45 Hamaiketakoa trikitixekin eta herri argazkia.
12:30 Herritarren arteko herri kirolak.
18:00 Pilota jaialdia.
20:00 Txingones de La Rencle mexikar taldearen kontzertua.
21:30 Bingoa eta zozketak.
22:00 Zezensuzkoa.

UZTAILAK 29 Astelehena

11:30 Hamaiketakoa.
12:30 Ping pong txapelketa.
14:30 Herri bazkaria.
16:30 Mus eta briska txapelketak.
16:30 Haurrendako jolasak.
00:00 Gaixoa ni.

12:00 Hamabietakoa, San Migel plazan.

12:00-14:00 Haur eta gazteendako parkea, Memoria Historikoaren parkean.

Euriarekin Erburua kiroldegian.

13:00 Bermut kontzertua: *Qué la canten*, Adriana Olmedo eta Nerea Bonitorekin, San Migel plazan.

14:30 Haur bazkaria, Memoria Historikoaren parkean.

Euriarekin, eskolako frontoian.

14:30 Jubilatuta eta adinduendako bazkaria, Kamiogaina elkartean.

Duo Volumen taldeak girotuta.

15:00 Herri bazkaria, Memoria Historikoaren parkean.

Euriarekin, eskolako frontoian.

15:30-18:30 Haur eta gazteendako parkea, Memoria Historikoaren parkean.

Euriarekin, Erburua kiroldegian.

19:00 *Dale Ramón* Trapu Zaharra konpainiaren ikuskizuna, Intsumisioaren plazan.

Euriarekin udal frontoian.

20:00 Banaketa, San Migel plazan.

20:00 Kontzentrazioa, plazan.

OGAK antolatuta.

20:00-22:00 Joselu Anaiak taldearekin dantzaldia, San Migel plazan.

21:00 Japoniar bonbak, Intsumisioaren plazan.

22:00 Zezensuzkoa, San Migel plazan.

23:30 Mariatchi Imperial de Guanajuato & Ballet Folclorico *Leyendas de Mexico*, futbol pistan.

Euriarekin udal pilotalekuan.

00:30-03:00 Joselu Anaiak taldearekin dantzaldia, San Migel plazan.

03:30 DJ Boletus Rumberus, gaztetxean.

OGAK antolatuta.

UZTAILAK 27 Larunbata

11:00 Historiaurreko ginkana, San Migel plazan.

12:00 Hamabietakoa, San Migel plazan.

13:00 Bermut kontzertua: *Voces Navarras*, San Migel plazan.

14:30 Untxi kalderete lehiaketa, Memoria Historikoaren parkean.

Eguraldi txarrarekin eskolako frontoian.

18:00 Herri kirolak, Memoria Historikoaren parkean. Eguraldi txarrarekin, udal pilotalekuan.

20:00 Banaketa, San Migel plazan.

20:00-22:00 Eztitan taldearekin musika, San Migel plazan.

21:00 Japoniar bonbak, Intsumisioaren plazan.

22:00 Zezensuzkoa, San Migel plazan.

23:30 Josetxu Piperrak taldearen kontzertua, futbol pista.

Euriarekin, eskolako frontoian.

00:30-03:00 Eztitan taldearekin musika, San Migel plazan.

OGAK antolatuta.

00:30-03:00 Eztitan taldearekin musika, San Migel plazan.

UZTAILAK 28 Igandea

12:00 Hamabietakoa, San Migel plazan.

13:00 Bermut kontzertua: *The Magic Gospel*, San Migel plazan.

17:30-20:30 *El Laberint*, Companya Itineraniarekin, Memoria Historikoaren parkea.

Euriarekin Erburua kiroldegia.

18:00 Pilota, udal pilotalekuan.

Lehen partida: 4 1/2 Club Irurtzun.

Binakako bigarren partida: Retegi Bi

- Arbizu / Elizalde - Bergera.

19:00 Olaztiko euskal dantzak, San Migel plazan.

20:00 Hegaluze parrillada, Vicente Argomaniz plazan.

20:00-22:00 Xaiborrekin musika, San Migel plazan.

21:00 Japoniar bonbak, Intsumisioaren plazan.

22:00 Zezensuzkoa, San Migel plazan.

23:30 *El Furgonólogo* Julen Axperekin, San Migel plazan.

Euriarekin udal pilotalekuan.

00:30-03:30 Xaiborrekin musika, San Migel plazan.

ETXARREN

FESTAK

UZTAILAK 26 Ostirala

17:00 Gynkana.

19:00 Txupinazoa.

19:15 2023-2024 jaiotakoei festetako zapia ematea.

19:30 Herri jokoak.

19:30 DJ Gaztemusic.

22:00 Herri afaria.

00:00-05:00 DJ Gaztemusica.

UZTAILAK 27 Larunbata

11:00-14:00 Puzgarriak eta apar festa.

11:30 Hamaiketakoa.

18:00 Txokolate jana.

18:30-19:30 Folklore dantzak.

20:00 Hiruko saskiratzeen txapelketa.

20:00-21:30 DJ Factoria.

21:30 Bingoa.

22:00 Zezensuzkoa.

22:30 Herri afaria.

00:00-05:00 DJ Factoria.

JARAIN!
Eraso
sexistarik
gabeko
ARAKIL
libre!

"Helburu politikoa dugu; iritzia eman beharra"

Arte Dramatiko ikasketetan elkar ezagutu zuten Ander Chamorro altsasuarrak eta Alba de los Ojos 'Virgo'-k. Podcast bat sortu zuten: 'Prácticamente Perfectas'. Gaur, 22:00etan, lehenengo denboraldiaren azken kapitulua grabatuko dute, Haritzan

Erkuden Ruiz Barroso ALTSASU

1 Nola sortu zen podcasta?

Virgo. Arte Dramatikoko unibertsitatean elkar ezagutu genuen, Madrilen, eta bigarren mailan La Pija y La Quinquerekin eta abarrekin *boom* bat zegoen. Gu *pedorro* batzuk garenez, podcast bat egitea pentsatu genuen. **Ander.** Denborarik ez genuenez, hor gelditu zen, baina laugarren mailan izan genuen irakasle bat, Marta Voz, sare sozialen garrantziaz hitz egin zigula. Aurrera egin genuen.

2 Zein da helburua?

A. Beti esan digute podcast bat egin behar genuela *duo dinamikoa* garelako. Helburu politiko bat dugu, iritzia emateko behar oso garrantzitsua.

V. Artistikoki frustratuta geunden. Esan genuen: azaleratu behar ditugun hainbat ideia politiko ditugu, *duo dinamikoa* gara eta artistikoki frustratuta gaude. Podcast bat egin behar dugu.

3 Zertaz hitz egiten duzue?

V. Garatzen joan den heinean kontziente izan gara zer kontaktu nahi izan dugun. Gure publikoa Z belaunaldia da, eta kontaktu nahi



Ander Chamorro eta Alba de los Ojos podcastaren egileak. @MARTACVFOTOGRAFIA

ditugun gauzak beraiei mugitzen dietenak dira. Gai indartsuak lantzen ditugu, feminismoa edo LGTB borroka bezala, baita pop kultura, haurtzaroko telesailak eta abarrez hitz egiten dugu ere. **A.** Sare sozialak kontuan izan behar ditugu ere; ez dute aukerarik ematen eduki politikoa erakusteko, baina gure haurtzar

roaz hitz egiten badugu eta pixkanaka LGTB borroka edo feminismo pixka bat sartzen badugu... 14 edo 15 urteko gaztetxo batek entzuten bagaitu eta bakarrik ez dagoela sentitzen badu, gu pozik.

4 Zein baliabide tekniko dituzue?

A. Virgoren aita produktorea da eta mikrofonoak eta abar utzi

dizkigu. Ni bideoaz arduratzen naiz; iphone bat. Oso etxekoa da. Gutxienekoarekin hoberena ematen saiatzen gara; profesionala ikustea. Virgok soinu muntai egiten du, eta ni sare sozialez arduratzen naiz.

V. Gaurko saiorako laguntzeko prest jende pila bat agertu da: Iñaki, Marta, kamerak utziko dizkigute...

5 Zer prestatu duzue gaurko?

V. Zer den podcast bat, zergatik egin dugun eta zergatik boom bat egon den kontaktuko dugu. Denboraldi honetan gertatu zaigunaren errepaso egingo dugu ere; gauza pila bat gertatu zaizkigu.

A. Sailak egingo ditugu ere, eta azalduko dugu zergatik aurkeztu behar garen alkatetzara. Umorearekin ariko gara ere. Ez dakit nola hartuko duen herriak, baina gu guztiarekin joango gara.

6 Podcastean paper bat egiten duzue edo zuek zarete?

V. Lerro oso fin bat dago. Ez da lagunekin tabernan egotea bezala, baina, aldi berean, ez dut esaten *hiru, bi, bat* eta pertsonaia hasten da.

A. Galdetzen didatenean esaten diet gu garelako baina exageratuta... Baina gero pentsatzen dut eta ni naizela sentitzen dut. Gure barrutik ateratzen den zerbait da.

7 Graduatu zarete. Nolakoak izan dira lau urte hauek?

V. Nolakoak izan dira horri buruzko kapitulu oso bat egiteko! **A.** Oso fuertea izan da. Gure iritzia da unibertsitatearen bizitza beste estereotipo eta gezur bat dela, eta errealitatea kontatu nahi izan dugu.

V. Lau urte oso gogorak izan dira, eta gehienbat arlo pertsonalean asko hezi naiz. Ez hainbeste akademikoan. Horregatik sortu zen podcasta.

8 Berriz egingo zenukete?

A. Ufa! Momentu honetan ez dut gehiago ikasi nahi. Badira gauza on batzuk berriz egitea gustatuko litzaizkidanenak. Etorbizuneko Ander lehenengo mailakora joango balitz eta gertatuko guztia kontatuko balioke, egingo nuke.

V. Nik ere egingo nuke. Oso gaizki pasa dut, eta bigarren mailan uztekoan egon nintzen. Baina etorkizunetik etorriko balitz, geldituko nintzateke.

9 Etorkizunerako proiektuak?

A. Antzerki baterako deitu didate, Euskal Herriko konpainia baterako, eta oso pozik nago genero ikuspegiarekin egina dagoela, feminista da. Musikal batean hartu naute ere Bartzelonan.

V. Ni lasaiagoa naiz. Piano ikasketak profesionalak egingo ditut eta ea tokiren batean abesteko aukera dudana.

10 Podcastaren bigarren denboraldia egongo da?

A. Bai, gainera elkartzeko aitzakia bada.

V. Ideiak ditugu, nola hobetu ikusten ari gara... Gogoia handiak ditut; pertsonalki asko betetzen dit.

11 Izena nondik dator?

A. Ikasketetan aterako zerbait izan zen ere; askotan esaten genuen, "dena ongi egiten duzu, zein perfektua zaren". Konturatu ginen denak garelako perfektuak.



ALAITU ZURE HERRIKO FESTAK!

KARTELAK, ESKUORRIAK, EUSKARRIAK, DEKORAZIOA...

gk
DISEINUA ETA KOMUNIKAZIOA
948 564 275
www.gkomunikazioa.eus